



# taxi kitto!



**Nola bizi dugu  
pandemia?**



Euskara Elkartea

### Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea  
Urkizu, 11 - solairuartera.  
20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

### Erredakzio kontseilua

Maider Aranberri,  
Ana Aizpurua,  
Ekhi Belar eta  
Eibarko ikastetxeak.

### Administrazioa

Marisol Uriarte.

### Erredakzioa

Maider Aranberri eta  
Ekhi Belar.

### Maketazioa

Ana Aizpurua.

### Azaleko argazkia

Malen Jainaga

### Copyright-a

Txikitto!

### Lege-gordailua

SS-1111/96



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jaimito, ingeleseko klasean dago eta esaten dio andereñok:

- Jaimito, zelan esaten da txakurra ingelesez?
- Oso erraza: "Dog".
- Eta al baitaria?
- "Dogtor".



Bi azeituna mendian zebiltzan eta bat lurrera erortzen da. Minaren minaz kexatzen hasi zen...

- Aiiii ze mina! – Uste dut hezur bat apurtu dudala! Besteak igotzen jarraitzen du eta esaten dio:
- Ezinezkoa da! Antxoaz beteta zaude-eta!



Ixteko ordua pasa ondoren, tipo bat kanposantu barruan geratzen da irten ezinik. Irteerara abiatzen da, hesiaren beste aldean lurperatzailea ikusten du eta aho beteta garrasi egiten dio:

- Utzidazu irteten!
- Lurperatzaileak erantzuten dio:
- Aizu! Ez esan tontakeriarik eta itzul zaitetz hilobira!



Hiru lagun: Tontoa, Inor ez eta Juanito. Ibai baten ondoan zeuden eta Juanito ibaira jausi zen. Tontoa poliziarengana joan zen eta esan zion:

- Juanito ibaira jausi da eta Inor Ez joan da haren bila. Eta poliziak:
- Zu tontoa zara?
- Eta Tontoak:
- Bai, nola dakizu?



Jaimito gelara doa eta irakasleak esaten dio:

- Non dago zure matematikako koadernoak?
- Medikoa utzi dut, problema gehiegi ditu-eta.



Egun batean neska bat sofara bazkaltzen ari da eta pixkat zikintzen zaio.

Orduan, hautsaren izpirituak agertu eta esaten dio:

- Ez baduzu zikindutakoa gaueko hamabiak baino lehenago garbitzen, ikusiko duzu!

Neska garbitzen hasten da, baina ez du lortzen. Arratsaldeko bostak, zazpirak, gaueko hamarrak...

- Ai ene! Gaueko hamabiak heltzen dira eta hautsaren izpirituak esaten dio:
- Ez duzu garbitu...
- Beraz, erosi spray on bat supermerkatuan, neska!



Oihaneko erregeak festa bat egin nahi du; orduan, oihaneko animalia guztiak joatea nahi du eta denei deitzen die. Aho zabaleko igela ere badoa. Festa heltzean, erregeak esaten du:

- Janari asko egongo da!
- Oso ondo! -jirafak.
- Zeinen ongi pasatuko dugun! -igelak.
- Musika egongo da!
- Oso ondo! -lehoiak.
- Zeinen ongi pasatuko dugun! -igelak.

Orduan, lehoiak erdi haserre zera esaten du:

- Baina ezin dira joan begi handiko animalia berdeak!


Eta igelak:


- Kokrodilo gaixoa...






## PUNTUAK BATZEN







## LABIRINTOA



## ZEIN EZ DAGO?




# Denborapasak



4 desberdintasun




Zenbat karratu daude?




8 desberdintasun





# LABIRINTOA





ni bai artista

## Krispetak egiteko makina

### Nola egin:

- 1.- Moztu bi latak irudian ikusten den bezala, kuterrarekin. Kontuz ibili, minik ez hartzeko!
- 2.- Jarri lata bat bestearen gainean.
- 3.- Bete goiko lata arto aleez, eta jarri kandela bat beheko latan.
- 4.- 10 minutu igarotakoan lata berotu egingo da, eta krispetak lehertzen hasiko dira!



### MATERIALA:

- 2 freskagarri lata
- Kandela bat
- Kuter bat
- Krispeta ale batzuk
- Heldu baten laguntza



## ? Zuk *galdetu*, guk *erantzun*

### Tximista fosilduak

Tximista bat hondarretan jausten denean, zenbait metro sar daiteke haren barrenera, sakonera. Haren beroak (~4.000 °C) hondar aleak urtzen ditu, eta tximistaren formako kristalezko hodi solido bat sortzen du. “Fulgurita” deritza hodi horri. Harri bihurtutako elektrizitateak askotariko koloreak har ditzake, harea osatzen duen materialaren arabera: beltzetik zuri zeharrargirainoko kolore guztiak. Orain dela 250 milioi urte inguru jausitako tximisten fosilak aurkitu dira.







Begiek oinek baino ariketa fisiko gehiago egiten dute. Egunean 100.000 aldiz mugitzen dira, pentsa!




Gure usaina hatz-marka bezain berezia da, eta bakarra. Bikiek, aldiz, usain bera dute.



Gizakion bihotzak auto bat mugi dezake. Oso organo indartsua da. Odola ponpatzen duenean sortzen duen presioa gorputzetik irtengo balitz, 10 metroko distantziara iritsiko litzateke eta indar hori nahikoa izango litzateke auto bat 32 kilometro mugitzeko.



Gorputz atal guztiguztiek dute euren funtzioa, hatz txikia dugu horren adibide. Txatxarra dirudien arren, bat-batean galduko bagenu, eskuak bere indarraren % 50 galduko luke.



Gorputzaren beroa uste duguna baino altuagoa da. 30 minututan litro erdi ur irakiteko adina bero askatzen du.



Gorputzean zer da azkarren hazten dena? Ez, ez, ez dira azazkalak. Aurpegiko ilea gorputzeko beste edozein ataletakoa baino askoz azkarrago hazten da.



Txakurrek zaunka, katuek miau eta txoriek txio. Eta, jirafek, zer egiten dute? Hainbat ikerketa egin eta gero, zientzialarien erantzuna da jirafek ez dutela inolako soinurik egiten. Berezitasun hori duen ugaztun bakarra da.



Arkatz bat 17 aldiz zorroztu dezakegu. 47 mila hitz idatzi daitezke arkatz bakarrarekin eta 56 kilometroko lerroa marraztu.



Erleek argi ultramorea ikus dezakete eta horri esker jakiten dute zein lorek duten nektar gehien.



# sukal-saltsan

## Txerritxo beteak

Ordubete inguru beharko dugu txerritxoaren errezeta egiteko.



### OSAGIAK :

- 500 g indar-irin
- Okinaren legamia  
lehorren 2 koilarakada
- 50 g azukre
- 250 ml esne epel
- 60 g gurin
- Arrautza bat
- Gatz-postreko koilaratxoa
- Limoi-birringura pixka bat
- Arrautza bat pintatzeko
- Betelanerako osagaiak
- Opil horiek gozoz zein gaziz bete daitezke: txokolatez, York urdaiazpikoz eta gaztaz, salamiz, txorizoz

### Nola egin:

- 1.- Irina bahetu. Legamia irin pixka batekin, azukrearekin eta esnearekin nahastu eta masa, estalita, 15 minutuz utziko dugu. Gainerako azukrea, gurin urtua, arrautza, gatz eta limoi azalaren arrailadura sartuko ditugu. Nahikoa oratuta dagoenean, beste 15 minutuz utziko dugu atsedean hartzen. Masak elastiko geratu behar du eta eskuetatik askatu. Horrela ez bada, irin pixka bat gehituko dugu, nahi dugun efektua lortu arte.
2. Masa 4 milimetroko lodiera izateko moduan zabalduko dugu. Koipeztatutako labearen erretilua prestatuko dugu, edo laberako paper batekin. 10 zentimetroko diametroa duten 16 biribil moztuko ditugu (edalontziekin egin daitezke). Labeko erretiluan 8 jarriko ditugu elkarrengandik bereizita. Erdian betegarri pixka bat jarriko dugu. Arrautza irabiatuaren gorringoa margotu genuen ertzean, zigilatzeke.
3. Masazko beste zortzi biribilak gainean jarriko ditugu eta honekin badugu aurpegia. 8 borobil txikiago moztuko ditugu txerritxoaren muturrerako. Sudurreko bi zuloak egin eta aurpegira arrautza-gorringoarekin itsatsiko dugu. Belarrietarako biribil txikiago batzuk moztuko

ditugu. Pixka bat luzatu, eta aurpegian arrautza irabiatuaren gorringoarekin itsatsi ondoren, muturrari buelta emango diogu, argazkian ikusten den bezala.

4. Txerritxoaren aurpegia gainerako arrautza-gorringoarekin margotuko dugu. 10 minutuz atsedean hartzen utziko dugu. Aurretik 200era labea berotzen dugun bitartean, txerritxoak sartuko ditugu, baina kontuz ibili behar dugu, 10 minutura txerritxoaren muturra kiskalita egongo baita. Beraz, erretilua atera eta aluminiozko paper bat jarri behar dugu, estaliz. Horrela ez dira erreko.
5. 18ora jaitsiko dugu tenperatura. 15 minutu gehiago utziko ditugu, labearen arabera, argazkian bezala ikusi arte. Erretilu batera aterako ditugu, hoztu daitezten.

### Begiak egiteko:

- \* Betegarri gozoa jarri behar badiozue: txokolatezko bi pipitatxo jar ditzakegu, edo txokolate beltz pixka bat urtu, xiringa batean sartu eta txokolatezko bi puntutxo jarri arte.
- \* Betegarri gazia jarri behar baduzue: oliba beltz zatitua erabiliko dugu.



## Txokolatezko trikuak

Urtebetetze festa baterako, askaria egiteko edo besterik gabe neska-mutikoekin sukaldean aritzeko, ziur gaude triku berezi hauek arrakasta itzela izango dutela. Ordubete eta hamar minutu beharko dugu errezeta egiteko, eta beste 25 minutu labean.

### Nola egin:

1. Ontzi batean gurina ondo bigundu. Ondoren, azukre-hautsa gehitu. Gero, almendra hautsa eta arrautza gehitu. Arrautza osorik. Dena ondo nahastuta dagoenean irina gehitu. Oso garrantzitsua da berriz ere guztia ondo nahastea.
2. Lortzen duzun orearekin pilota bat egin eta film paperean bildu. Hozkailuan ordubete sartu pixka bat gogortzeko. Ordubete pasatakoan atera ore a hozkailutik eta pilota txikiak eginez eman triku forma. Sudurtxoa da ondo egin behar dena.
3. Sartu denak labean: 25 minutuz, 190 gradutan. Bitartean txokolatea urtu. Trikuak labetik atera eta pixka bat hozterakoan txokolatean sartu, sudurra ez den beste alde erdia estaliz. Segidan eta txokolatea gogortu aurretik, sartu txokolatezko fideotan eta utzi lehortzen.
4. Pintzel batean laguntzarekin eta trikuen eztenak gogortzen dauden bitartean begitxoak eta sudur punta txokolatearekin egin.

### OSAGAIK:

- Gozogintzako txokolate beltza, 90 g
- Txokolatezko fideoak, 150 g
- Gurina, 140 g
- Almendra hautsa, 30 g
- Txokolate pralineak, 90 g
- Irina, 250 g
- Azukre-hautsa, 70 g
- Arrautza bat



# Zertan aldatu dizu bizitza COVID-19ak? Zeren falta igartzen duzu?



**NORA  
MUGIKA**

Bizitza asko aldatu zait; lehenengo 3 hilabetez egon behar izan genuen etxetik irten gabe, eta eskolara ere ez ginen

joan. Orain eskolan hasi gara eta dena oso desberdina da. Denbora guztian musukoarekin egotea oso nekeza da, eta gel hidroalkoholikoa behin eta berriz eman behar izatea ere nekagarria da. Gainera, zauri bat baduzu pila bat pikatzen du! Nire aitona eta amonaren besarkaden falta da gehien igartzen dudana. Espero dut birus hau behingoz joatea.



**IKER  
LAZKANO**

Niretzako COVID-19 oso gauza arraroa izan da eta ez nuen pentsatzen luzerako izango zenik. Niri ez zait bizitza asko

aldatu baina jende askoren falta igartzen dut: lagunak, familia... Aldaketa handiena musukoak ekarri dit; kirola egiteko, kalean ibiltzeko eta gauza askotarako oso deserosoa egiten zait. Familiaren eta lagunaren besarkada eta musuen falta handia igartzen dut. Espero dut COVID-19 laster amaitzea, gauza txarrak besterik ez ditu ekarri-eta.



**ALBA  
FERNANDEZ**

Orain etengabe egon behar dugu musukoarekin: kalean, eskolan... Eta "hidrogela" behin eta berriro bota behar dugu eskuetan. Lehen

urtebetetzeetan jende asko elkartzen ginen, orain ezin gara besarkatu, ezin gara gure lagunaren etxera joan lo egitera, ezta arratsaldea pasatzera ere! Zaharrenak edo gaixotasun arriskutsuak dituztenak hil egin daitezke...

Jaien falta igartzen dut gehienbat: San Juanak, Urkiko jaiak... Eta kanpamenduak, San Asensio, adibidez. Eta aurten koronabirusa joaten ez bada ezingo naiz berriro joan...



**ALEX  
BARRENETXEA-  
ARANDO**

COVID-19ak asko aldatu dit bizitza. Konfinamenduan ezin nuen etxetik irten, eta orain ia

ez naiz kalera ateratzen eta irteten naizenean musukoarekin joan behar beti. Oso itogarria da! Horren falta igartzen dut: kaletik musukorik gabe ibili ahal izatea. Eskuak askoz gehiago garbitzen ditut orain, baina hori ez zait inporta. Eskolan dena da desberdina, ezin ditugu lagunak ikutu, denbora guztian musukoarekin... Bizimodua oso desberdina da orain! Nire lagunekin denbora gehiago egotea nahiko nuke, baina musukorik gabe! Eskolan normal egotea eta telebistan entzuten den guzti-guztia ez izatea COVID-19ari buruz! Hori nahiko nuke nik.



**XABI  
PEREZ**

Nire bizitza gehiago aldatu duena musukoa izan da. Ez zait bat ere gustatzen! Konfinamenduak ere nire bizitza aldatu

zuen: ezin nituen lagunak ikusi, ezin ginen kalera irten... Lagunekin igerilekura joatea nahiko nuke, oso ondo pasatzen dugu elkarrekin, eta eskolako klaseak musukorik gabe izatea, eta jolastokian alde batetik bestera korrika ibiltzea, baina musukorik gabe... Eskolako txangoen falta ere igartzen dut.



**ALEX-HAFEZ  
JIMENEZ**

Nire bizitzan aldaketarik handiena da amama ezin besarkatzea, hortan igarri dut aldaketarik handiena. Lehen

bezala ibiltzea nahiko nuke, kirola egitea, futboleko jokatzeko... Lehen egiten genituen gauzak lehen bezala egitea.



**GAIZKA  
SAN JOSE**

Bizitza zertan aldatu didan COVID-19ak? Arauak izan dira aldaketarik handiena: musukoa jantzi beharra, gel

hidroalkoholikoa, segurtasun-distantzia, gauzak ezin ikutu... Lagunen besarkaden falta izugarria sentitzen dut.



**ISMAEL  
GOMEZ**

Aldaketarik handiena da lagunak ezin ditudala ikutu eta amamari ezin diodala musurik eman. Zeren falta igartzen dudana?

Bereziki bi gauza azpimarratuko nituzte: batetik, korrika egitea, eta, bestetik, futboleko jokatzeko.

# zer irakurri

Juan San Martin Liburutegia



6 urtetik aurrera

## Argalas

Bi eguzkik argitu zuten egun hura. Lehenak, handiak eta ederrak, zeruertza laranjaz koloreztatu zuen. Bigarrena, txikia eta samurra, Argalasen belarri artean agertu eta inguruan ibili zitzaion jira eta bira. Ez ninduen ustekabeen hartu. Izan ere, Argalas txakur espeziala zen. Eta espaziala!



## Luxia untxi txikia ihesi

Luxia Untxi Txikia Imeldaren panpina kutuna da. Horregatik, beti aldean eramatan du Imeldak. Baina Imelda ez da oso atsegina Luxia Untxi Txikiarekin. Eta, egun batean, alde egitea erabakitzen du Luxiak. Zer egingo ote du Imeldak?



8 urtetik aurrera


## Amona Vladimiraren urrezko hortza

Vladimira amona bitxi da. Clementino aitonaarekin batera, armiarmen zirkua sortu zuen eta, sidekar motorrekin, mundu osotik bidaiatu ziren beren ikuskizunarekin. Itzulipurdiak eta malabaris-moak egiten ditu; harrituta uzten ditu guztiak. Urrezko hortza du, eta distira berezia izaten du hortzak bilobei bere abenturak eta istorioak kontatzen dizkienean. Bere bilobetako batek amona harrigarriaren iragan artistikoa eta amets zoroak gogoratzen ditu.



## 29 ipuin zoro

29 ipuin zoro, irakurtzeko atseginak eta kontatzeko errazak, irribarrea ezpainen. Era guztietako ipuinak, guztiak zoroak, goxo-goxo kontatzeko eta entzuteko zoragarriak.



10 urtetik aurrera

## Azken lanhütarra

Ziur dakit uraren zikloa ezagutzen duzula, guztia prozesu natural baten bitartez gertatzen dela sinetsarazi dizutela. Baina badakizu zer? GE-ZU-ARRA. Gezurra da kontatu dizuten hori, edo ez da egia osoa behintzat. Onaire naiz, laino-gidari bat. Lanhütar bat. Azken lanhütarra. Milioika izan ginen garai batean, baina orain, norbaitek lagundu ezean, desagertu egingo gara betiko...



## Olga eta jatorri misteriotsuko gauza kirasduna

Animaliak aztertzen dituen zientzialaria izango naiz laster, ikusiko duzue. Egunkari guzti-guztiek hitz egingo dute Olgari buruz, ume zientzialari harrigarriari buruz. Bereziki jendeak aurkitu dudana izaki arraroaren berri izaten duenean.





ipuina

## Manitu handiaren probak

Behinola, orain dela oso denbora luze, Manitu Handiak izar eta hodei lanaka batzuek sortu zituen eta baita zerua eta eguzkia ere. Geroxeago, lurra sortu zuen eta bertako zati batekin maitemindu zen, gaur egun Amerika deitzen dugunarekin, hain zuzen. Lur hura hain ederra eta emanhorra zenez, izahiren bat sortzea otu zitzaion. Baina, han biziko ziren izahiek neurrigabeak oihanak, mendi altuak eta ur distiratsuak bizikimaitatu beharke zituzten; baita koloredun lorez beteriko zelaiak eta fruitu gozoz beteriko zuhaitzak ere. Orduan, Manitu Handiak bere irudiko gizaki bat sortzea erabaki zuen, lur ezin hobe hura berari eskaintzeko asmoz. Buztina hartu eta lanari ekin zion. Buru-belarri aritu zen lanean, hariak eta bere itxura zuen irudi bat modelatu zuen arte. Gero, ogia egiten den bezalaxe, labe bero batean sartu zuen. Labea erabiltzen zuen lehen aldian zen eta, behar bada, beroegi zegoenez edo behar baino denbora gehiago eduki zuenez bertan, labeetik atera ostean errata eta belztuta zegoen gizakia: gizaki beltza sortu zuen Manitu Handiak. Eta lur hura merezi ez zuelakoan, oso urrun jaurtiki zuen, eta Afrikan erori zen. Hala ere, Manitu Handia pazientziaduna eta arduratsua zenez, sekulan amore ematen



ez zuenetakoa, berriro ere ekin zion lanari. Aurreko esperientzian sinarrituz, oraingoan arrata handiagok modelatu zuen buztinezko gizakia. Itxura hobekoa zen. Pozik eta urduri aldi berean, labean sartu zuen, baina arinegi eten ei zuen labealdia kishaliko zuelakoan, eta gizaki itxurazko buztina ez zen behar bezala geratu Manitu Handiaren iritiz. Zurbilegia zen, kolore gutxiakoa. Eta beltzarekin egin zuen bezalaxe, oso urrun jaurtiki zuen eta Europan erori zen. Azkeneko proba burutu zuen. Oraingoan, ahatsik gabeko modeloa zen, bere maitasun eta jakiturian sinarritutako artista oso baten lan ederra. Kontu handiz hartu irudi hura eta labean sartu zuen bersaldirik onenean. Behar beste denboran egon zitzaion adi labeari, eta atera ostean, kolore kolore gorriakoa zuen bertatik ateratako gizakiak. Egundokoa zen eta, miragarria zelakoan, gizakia lurrazko gainean ipini zuen. Harrezkero, Azal Gorriak hazi ziren Natura oparo eta emanhorraren artean, eta Manitu Handiaren babespean. Beltzak eta Azal Zuria, ordea, hazi edo ugaltu egin ziren bestelako zeru batzuen pean. Baina, egia esan, Sortzailearen "proba" batzuek besterik ez dira.

Txerokien ipuina



## ipuina

# Zergatik egiten du negar zumeak?

Bi gizon egiptoar ugazaba gupidagabe izan ziren haien esklabo judutarrentzat. Farasiaren kapataz hauek makila batez jotzen zituzten gupidagabe, lanean ari zirela, indarrik

gabe geratzen zirenak; eta langile errukarriei ez zieten atseden tarterik txikiena ere eskaintzen. Jo eta jo ari zirela, asko ziren apurtzen zituzten makilak; horregatik, basora adar bila joatea erabaki zuten gizagaixo haiei egurra emateko. Lehenbizi palmondo batengana hurbildu ziren, garai hartan adarrak lurretik hasita baitzeuzkan.

- Alde hemendik! -esan zuen zuhaitzak tinko, eta bere adarrak gorantz jaso zituen



egiptoar anker haiek eskuratu ez zitzairen. - Ez dut Jainkoa, nire sortzailea, garesten duen herriaren zigor izan nahi.

Kapatazek han gertu hazten ari zen pinu bat ikusi zuten. Eta haren adarrak mozttera

zihozazela, hark ere adarrak, palmondoak bezala, lurretik hasita baitzeuzkan gorantz jaso zituen haserre:

- Utikam! Nitaz ez zarete baliatuho zuen asmo zital hori betetzeko.


Gauza bera gertatu zitzaien izeiarekin eta zedroarekin. Eta basotik burumakur ateratzen zihozazen unean, zume negarti bat ikusi zuten.

- Moztu nahi dituzuen adarrak -eskaini zizkien hark eta makuritu egin zen borroroei lana errazteko.

Handik urte batzuetara, Moisesek bere herria Itsaso Gorria zeharkatuz askatasunerantz zeraman egun berean, Jainkoak saritu zituen judutarrek zigortzeari uko egin zioten zuhaitzak. Palmondoak, pinuak, izeiak eta zedroak adarrak betiko jasota ikusi zituzten. Zumea, ostera, adarrak erorita geratu zen eta ordutik negar egiten du, lotsaz beterik, bere ekintza gaizto harengatik.



Judutarren ipuina



zu margolari